

OSTEGUNA

2020/02/13
8. urtea, 1.187. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

Harrobiari begira jarri da Tolobolei

Eskola Kirola programaren barruan boleia aukeren artean sartzeko eskatzen diete ikastetxeei // **6**



INAUTERIAK ASTEBETE BESTERIK EZ

Tolosako Udalak «elkarbizitzaren inauteriak» izango direnak aurkeztu ditu; Pintxana txarangaren eta Berazubiko danborradaren urteurrenak nabarmendu dituzte // **2**

Larraul eta Alkizako ostatueta iritsiko da SagarArte ekimena

Bihar egingo dute afari gidatua Larraulen eta hilaren 28an Alkizan; ekimeneko sortzaileen obrak izango dira ikusgai sei ostatutan // **3**

«Belaunaldi aldaketa historikoa ari da gertatzen»

JON IRISARRI
TXIRRINDULARIA

Saudi Arabiatik itzuli berri da leaburuarra; ilusioz ekin dio 2020 urteari // **7**



ITZEA URKIZU

Audi Q3 Sportback berria.

Autowag Tolosa
Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q3 Sportback berria : 110-169 KW (150-230 CV). CO2 isurketak (g/km): 150tik 206ra (NEDC: 123tik 174ra). Kontsumoa (l/100 km): 5,9tik 9,1ra.

Elkarbizitzaren inauteriak izango direlakoan, iragarri dute festa

Tolosako Udalak aurkeztu ditu 2020. urteko inauteriak, astebeteren faltan; urteurren nabarmenak ospatuko dituzte, Pintxana txarangak eta Berazubiko danborradak

Itzea Urkizu Arsua

Zazpi egun barru, urduritasuna eta egonezina airean usainduko dira Tolosan. Datorren asteburuan atariko onenak eginda, kaldereroek eta pregoi kontzertuak piztutako txinparta luzatzera helduko da, ostegunean, txupinazoa. Tolosako Udalak atzo eguerdian egin zuen 2020ko inauterien aurkezpen ofiziala, eta elkarbizitzaren inauteriak izatea espero duela azaldu zuen Olatz Peon alkatea. «Urteko prentsaurrekorik alaiena da gaurkoa».

Beste behin, herriko eragileei eskerrak emanez ekin zioen aurkezpenari Peonek, «guztien lana ezinbestekoa baita, halako festa batzuk aurrera ateratzeko». Bide horretan, fokua jarri zien, inauteriak elikatzen dituzten egitasmo pertsonal eta pribatuei.

Atzoko aurkezpenean protagonismo berezia izan zuten, alkatearen aldamenean, Pintxana txarangak, Berazubiko danborradak eta Udaberri dantza taldeak. Ostegun Gizenan 80. urteurrena ospatuko du Pintxanak, eta berrikuntza eta ezusteko txikiren bat izango dutela iragarri zuen Ivan Arostegi txarangako



Ivan Arostegi (Pintxana), Olatz Peon alkatea, Xabi Artola (Udaberri) eta Mertxe Bustamante (Berazubi). I. URKIZU ARSUA

kideak: «Ospatzeko moduko zenbakia da, eta oso gogotsu gaude».

Bide beretik, Berazubi auzoko danborradak mende laurdena beteko du, Zaldunita bezperan, danborra jotzen, eta haien ordezkari Mertxe Bustamantek hartu zuen hitza, herritarrek parte hartzera deituz: «Gazteak erakarri nahi ditugu, eta aurten taldetxo bat irtengo da, jantzi berri eta ekonomikoago batekin. Jende gehiago behar dugu, eta gustatuko litzazuke herritarrek danborradara ekarpenen bat edo beste egitea».

Udaberri dantza taldeak, azke-

nik, inauterien aurkezpen ofizialean azaldu zuen, beren prentsaurrekoan iragarritakoa: *Gaur txantxo naiz* emanaldia eskainiko dute bihar, euskal inauteriak ikuskizun berezi batean bilduz.

Askotan errepikatzen da, Tolosan, inauteriak urtero berdina direla, baina urtero desberdinak. Horregatik, urtez urte sor daitezkeen ideia eta jarduera berriekin batera, urteroko hitzorduek markatzen dute, birika inauterizaleen arnas-erritmoa. «Kaldereroak eta pregoi kontzertua, txupinazoa eta Kabi Alai Kuttuna, Arpegiren ikuskizuna, Ostiral Meheko danborrada, Zaldunita bezperako danborrada, txarangak, Diana, Alborada eta txosnak ezinbesteko osagaiak izaten dira beti, eta aurten ere hala izango dira», azpimarratu zuen alkatea.

Zenbakitara joz, 80 karroza eta konpartsa irtengo dira, Zaldunitatik Asteartitara bitarte, eta 1.400 haur eta gaztetxotik gora elkartuko dira, Astelenitan, aisialdi taldeen bueltan.

FESTA BAI, PREBENTZIOA ERE BAI

Gozatzeko plazek aurrez hartu beharreko neurriak eskatzen dituzte, eta Tolosako inauterietan

prebentzio eta sentsibilizazio lana egin behar izaten da.

Parekidetasunaren esparruan, eraso matxisten aurkako kanpaina eraberritu du udaleko Berdintasun Sailak eta, urteroko Joka sano pegatinekin eta puntu moreekin batera, kalkomaniak eta pegatina berriak banatuko dituzte, aurten, *#LIBREn* nahi leloa idatzirik dutela. Balizko eraso matxisten aurrean, jarrera aktiboa izateko eskatu zuen alkatea.

Alkohol kontsumoa ardurazkoa izan dadin, azken urteotako dinamikari helduko diote aurten ere: Gipuzkoa osoko DBH eta Batxilergoko ikasleen gurasoei gutun bat helaraziko die udalak, *Ez dago ezer puntutik komara* leloarekin. Gazteekin eurekin ere egin dituzte zenbait heziketa saio, eta kalderero egunean gazte lokalak bisitatuko dituzte, informazioa banatuz. Gauza bera egingo dute inauteri egunetan, trenean bertaratzen direnekin, eta Ai Laket! elkarteko kideek ere esku hartzeak egingo dituzte, Inmakulada ikastetxeko Gizarte Integraziooko ikasleekin batera, inauteri egunetan. Azkenik, Euskal Herria plazan testing karpaa bat ezarriko dute, Zaldunita

egunean, 00:00etatik 03:00etara bitarte.

Bost jai egunek ohiko bost egunek baino hondakin gehiago sortzen dute herrian, eta horretan eragiteko, udalak ezinbestekotzat jo du herritarrek ardura hartzera deitzea.

Eta, elkarbizitzaren inauteriak izango direnaren esperantzaz aurkeztutakoek, elkarbizitza errazteko neurri berriak izango dituzte, udalak joan den astean jakitera eman zuenez. Besteak beste, soinu mugatzaileak ezarriko dituzte karrozetan, eta inauteri egunetan ikuskatzaileak ibiliko dira, musika ekipoak ateratzen dituzten talde guztiei soinua neurtzen: inork ezin izango du bolumena 90 dezibeliotik pasatu.

Horren harira, zenbait karroza eta konpartsak haien desadostasuna kalean azaltzeko duten asmoa bolo-bolo dabil egunotan, Tolosan; antza, Zaldunita egunean ordubeteko geldialdia egiteko asmoa dute. Alkatea udalak neurri zehatzak hartu beharra zeuzkala nabarmendu zuen atzo: «Inauterietan norberak nahi duena adierazteko aukera dauka, beraz, geldialdia egin nahi duenak, egin dezala».

JENIALTASUNAK BADU SARIA

Hilabetetako lana izaten da, askorentzat, inauterietarako ideiei forma eman, eta konpartsa, karroza edo mozorro forma ematea. Inauterizaleetasun dirdiratsuenek saria izango dute aurten ere, eta otsailaren 28an banatuko dituzte bost sariak, Topic zentroko aretoan. Udalak errekonozimendu horietako bat nabarmendu nahi izan du: Berdintasun Saria.

Iazko konpartsa irabazlearen eskutik, zapi morea jasoko du saritzat, aurtengo talde txapeldunak eta, harreman parekideak sustatzearekin batera, emakumeen parte hartzea nabarmendu, nahiz sexu-genero aniztasunaren aldeko mezu sinbolikoak lantzen dituzten taldeak izango dira jomugan, aitorpen morea banatzeko.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

Bixente Ameztoiren atzera begirakoa, Bilbon

AMASA-VILLABONA // Ekainaren 7ra arte, Bixente Ameztoi (Donostia, 1946 - Villabona, 2001) artistaren 52 obra ikusi ahal izango dira Bilbon. Ameztoiren atzera begirakoa Madrilgo Arte Ederren zirkuluan izan da ikusgai urtarila arte eta orain Bilboko Arte Ederren Museoko 32. gelan izango da. 2012. urtean izan zen Bixente Ameztoiren obrak Villabonan ikusi eta gozatzeko aukera.

Anoetako EH Bilduk solasaldia antolatu du larunbatean

ANOETA // EH Bilduko Gipuzkoako arduradun den Eneko Maiorekin aritzeko aukera izango da, larunbatean, otsailak 15, 11:00etatik 12:30era liburutegi ondoko balio anitzeko gelan. Bertan EH Bilduk azken hilabeteetan emandako pausoak aztertu eta aurrera begirako erronken berri emango dute. Horrekin batera herritarrek dituzten galdera, kezka eta ekarpenak ere jasoko dituzte.

Lilatoira joateko zerbitzua jarriko du Asteasuko Udalak

ASTEASU // Martxoaren lehen egingo da aurtengo Lilatoira Donostian. Asko dira parte hartzen duten asteasuarrak, eta honen bestez udalak Donostiara joateko autobus zerbitzua jarri du. 09:00etan aterako da, Asteasuko autobus geltokitik eta 12:30ean itzuliko, autobusak Donostian utzitako tokitik. Izen ematea, Mattin liburudendan egin beharko da, otsailaren 21era arte. Zerbitzua doakoa da.

Lilatoira joateko Irurako autobusean izen ematea zabalik

IRURA // Antolatzaileek jakinarazi dutenez, korrikalariak, animatzaileak edota ikusleak joan ahal izango dira martxoaren lehen Donostiara, Iruratik aterako den autobusean. 09:00etan aterako da eta 13:30ean itzuli. Otsailaren 19ra arte eman daiteke izena Xare eta Errekalde tabernetan eta autobusean bertan ordaindu beharko da. Bost euro balioko du Donostiarako joan-etorriak.



SagarArteren azkeneko ekimenean parte hartzen duten erakundeetako ordezkariak aurkezpen ekitaldian. ATARIA

SagarArte ekimena herriko ostatueta iritsiko da ostiralean

Larraul eta Alkizako herriko ostatuek, afari gidatuak prestatuko dituzte ekimenaren barruan. Lehenengoa bihar izango da Larraulen, eta bigarrena, hilaren 28an, Alkizan

Jon Miranda Larraul

Astigarragako Astarbe sagardo-tegiko arduradunek, duela hiru urte jarri zuten martxan irabazi asmorik gabeko SagarArte elkar-tea. Kultur sorkuntzan sagardotegiek bere garaian izan zuten paper aktiboa berreskuratzeko asmoz sortu zuten, Joseba Astarbe lehendakariak azpimarratu bezala, «sagardotegia ez baita soilik festarako leku bat».

Norabide horretan eragiteko, urte hauetan sortzaile gazteen artean deialdiak zabaldu izan ditu SagarArtek eta artista gazte-ek egindako obrak erakusteko zirkuitua osatu du. Besteak beste, Zizurkilgo Plazida Otañoko erakusketa gelan 2019ko urtarilean erakutsi zituzten zenbait obra eta artelanekin batera sagardo kata burutu zuten, *Sagardoaren kondaira* izenburupean.

Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera antolaturiko lehen SagarArteko sortzaile lehiaketa irabazi zuen, hain zuzen, Maria Altuna Lizarraga zizurkildarrak. *Malus Arbore Cecidit* izenpean, zeramikazko hiru piezek osatzen

dute obra, pintura ezberdinekin landuta. Garai batean sagardoa egiteko erabiltzen zen upel bateko taulekin batera aurkeztu zituen lau obrak: *Sagarra*, *Egurretik Egurrera*, *Sagar Denborak* eta *Txertaketak*.

SagarArte ekimenean parte hartu duten sortzaile hauetako batzuen obrak Gipuzkoako sei herriko ostatutara eramango dituzte orain eta bertan ikusgai izango dira apirila bitartean. Sorkuntza lan horietan oinarritutako afariak prestatuko dituzte herriko ostatuek. Proiektuarekin bat egin dute Larraulgo eta Alkizako ostatuek eta lehen bi afariak bertan egingo dira, otsailaren 14an eta otsailaren 28an, hurrenez hurren. Gero, Mutiloako, Zeraingo eta Ezkioko bi ostatutan izango dira hurrengoak.

Iker Uranga, Larraulgo Zirta jatetxeko buruak hitz egin du gainerako herriko ostatuen ize-nean eta nabarmendu du aspal-ditik dutela ostatuek sare bat osatzeko gogoia eta orain SagarArtek eman diela horretarako bidea. Herriko ostatuek komunean dituen ezaugarriez aritu da

Uranga: «Herri txikietan aurkitzen dira eta udalak hirugarren batzuei emakida bidez utzitako espazioak dira; Bertako produktuan oinarritutako ostalaritza zerbitzuak eskaintzen ditugu, baina horrekin batera bestelako funtzioak ere betetzen ditugu: herriko eskolako jantokia gara, denda bezala funtzionatzen dugu eta turismoarako harrera guneak dira gureak».

Ekimenaren aurkezpen ekitaldian izan da, hain zuzen, Iker Goiria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo zuzendaria eta nabarmendu du, Gipuzkoako barnealdeari balioa emateko eta lurraldearen deszentralizazioan aurrera pausoak emateko ekimena dela SagarArtek orain proposatzen duena. «Herri txikien promozioa bultzatzen lagunduko digu». Eskualdeen arteko lankidetzaren ere nabarmendu du Goiriak eta landa garapen elkar-teen babes eskertu du. Aurkezpen ekitaldian izan da, besteak beste, Tolomendiko teknikari, Imanol Olano.

SagarArteren azkeneko ekimena begi onez ikusi dute era-

kunde ezberdinek eta mahai baten bueltan alor ezberdinetako arduradun instituzionalak jar-tzea, «garrantzitsua» dela uste du Mari Jose Telleria, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendariak. Horren erakusgarri, Eusko Jaurlaritzako Landa eta itsasertz garapenerako eta Europako Politiketarako zuzendari Jone Fernandezek hitzak: «Proiektu oso interesgarria iruditzen zaigu eta bat egiten du guk herri txikiak promozionatzeko aurrera daramagun politikarekin». Elkarlanaren ideia azpimarratu du, baita ere, Xabier Urdangarín Astigarragako alkateak eta gastronomia arte diziplinatza jo du, dastamena, usaimena, ikusmena eta ukimena uztartzen dituelako. «Arte plastikoak gehituz gero, sagardoaren kultura oraindik ere gehiago zabaltzeko aukera ematen digu», esan du alkateak.

AFARIAK OSTATUETAN

SagarArteren ekimenari esker, apirila bitarte artisten sorkuntza lanak izango dira ikusgai herriko ostatueta eta ostatu bakoitzak, aldi berean, bost plater prestatuko ditu arte lan horietan oinarrituta. Hau da biharko menua Zirta ostatuan: «Asteasuko porruen krema, saltsa berdean egindako legatzaren aparrarekin; Etxean egindako txerri odolkoa, Iparraldeko eran, sagardotan erretako Errezil sagarrarekin; Haritzaren gaineko bakailoa, brasan erretako berduarekin eta izkiratzar mahonesarekin; Tenperatura baxuan sagarraren egurrarekin ketutako txerri saiheksia, brasaren olioan konfitaturiko azenario eta lekekin; Atzoko eta gaurko postrea, sagarrak, intxaurrek eta sorbetea». Afari gidatu formatuan platerak aurkeztu aurretik sorkuntza lanak aurkeztuko dira, obren atzean dagoen kontakizuna mahai gainean jarri eta platerarekin duen harremana erakutsiz. Sagarra eta sagardoaren kultura oinarrian dagoenez, sagardo ezberdinekin uztartuko dituzte obrak eta jatekoak.

Bihar egingo dute Larraulen afaria eta dagoeneko ez da bertara joateko tokirik geratzen. Hurrengo hitzordua Alkizako ostatuan izango da, otsailaren 28an, eta bertako afari gidatuan parte hartu nahi duenak 943 69 18 36 telefonora dei dezake. Gainerako herrietatik Alkizara joateko autobusa antolatuko du bertako udalak, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, Tolosatik ere pasako da. Erreserbak, *sagararte@astarbe.eus* helbidean ere egin daitezke.

Bertsoa, antzerkia, poesia eta musika, 'Erik eta Win' lanean

Buhameak taldeak bigarren ikuskizuna estreinatu berri du, eta Asteasun aurkeztuko du bihar, udal aretoan, 20:00etan; harreman intimoen barrukietan begiratzen dute

Erredakzioa Asteasu

Ez gara Palestinaz ari! izan zen Buhameak taldeak eskaini zuen lehen emanaldia. Sei urte igaro dira hura estreinatu zutenetik, eta esperientzia «aberasgarria» izan dela, eta publikoaren «harreman ezin hobea» izan duela diote, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariek eta Aitor Atxega eta Imanol Kamio musikariek, taldeko kideek. Bada, «lehenengoaren filosofia bera mantenduz», bigarren ikuskizuna egin dute, *Erik eta Win*. Donostian, iragan ostiralean estreinatu ostean, Asteasuko udal aretoan izango da bihar, 20:00etan.

Erik eta Win ikuskizuna, beraz, ez da lehengoaren jarraipen bat, baina, kasu honetan ere, protagonisten baitako egiak eta esperientziak kontatzen dituzte. Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariek, haien arteko harremanaren eboluzioa ardatz hartuta, harreman intimoen barrukietan begiratzen dute. Nola erakarri ziren, nola nabigatu duten botere harremanetan, nola elkar lagundu duten, nola konpetitu duten, zein nolako harremanak izan dituzten emakumeekin eta nondik nora hurbildu zatzaizkien, nola ezkutatu eta agertu dituzten zenbait desio eta behar emozional... Hain agerian ez dauden gakoak aztertzen dituzte, izan jendartearen aurrean



Antzezlanari iragartzen duen kartela. ATARIA

erakusten dutena, edo izan izatearen txokorik sakonenean ezkututzen dutena, onartuak ez izatearen beldur edo maitatuak direla senti dezaten. Gaur egun gizon izateak mantentzen dituen estereotipoen gainean hausnartzen dute, eta horretarako, bi gizon eredu gorpuztuko dituzte. Lagunkoiagoa, sentsibleagoa eta biguinagoa dena antzezuko du Muñoak eta gogorragoa eta bere baitan gordetzera egiten duena Lizarralde; orokorrean, sumatu litekeen noraeza ere bistaritzen dute. Gizon eredu berriak sortzea premiazko eginkizuna dugula islatzen dute, eta horretarako erantzun zuzenik ematen ez bada ere, etorkizunera begiratzen duten urratsak iradokitzen dituzte.

DIZIPLINA DESBERDINAK

Lau kidek osatzen dute Asier Sota antzezle eta zuzendariak gidatutako obra. Ander Lizarralde eta Unai Muñoa gidoiaren egileak dira eta emanaldiko ahotsa, Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariek lagunduta, lehenak piano eta eskusoinuarekin eta bigarrenak gitarrarekin.

Aipatzekoa da doinu berriak plazaratuko dituztela, bai eta zenbait kantu proposamen ezberdin ere. Hainbat diziplina artistiko ezberdin lantzen dira ikuskizun honetan. Hala nola, bertsoa, antzerkia, poesia, musika... Erabiltzen duten tresna garrantzitsuenetako bat umorea da, horretan oinarritzen baita, batik bat, antzerkiari dagokion artea.

GUTUNA

Egia osoa argitara!

Herri honetan, minarekin batera bizitzen ikasi behar izan dugu. Guardia Zibilarren, Espainiako Poliziaren zein Ertzaintza-ren kuarteletan noizbait egin ziguten mina –min infinitua– inoiz ez da sendatu: barru-barruan gurekin daramagu, edonoz, edonora. Noizbait iraindu egin gintuzten eta umiliatu, mespretxatu eta gutxietsi, ukitu eta ito, jo eta bortxatu... eta gure arteko zenbait hil ere egin zituzten. Hutsaren hurrengo sentitu ginen, baina zauri guztiekin burua altxa eta aurrera egiten ikasi genuen. Beti ere minez, baina gure herriaren askatasunaren alde borrokan jarraitzeko gai izan ginen.

Herri honetan, tortura arma aski sofistikatu izan da euskal independentismoaren aurka jarduteko. Arma sistemikoa eta sistemikoa. Funtzionatzeko, sare kafkiar bat antolatu zuten, beren arduradun politiko, instituzional, polizial, mediko, judicial eta mediatikoen inplikazioz.

Makineria handia, gu txikiagotu eta txikitzeko. Baina 5.655 lagun egin digutena ez omen da gertatu; geure burutazioa baino ez omen da. Eta geure mina areagotu duena horixe da azken batean, aitortza gabezia hori. Zeren eta gurekin daramagun mina sekula desagertuko ez bada ere, gertatutakoa argitara ateratzek zama astun hau nabarmen arindu lezake.

Egia osoa argitara emateko bide luzea geratzen da oraindik. Eusko Jaurlaritzak egin zuen lehen urratsa, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako tortura kasuak EHUren Kriminologiaren Euskal Institutuaren bidez ikertzeko eskatzean, Pako Etxeberriaren gidaritzapean.

Nafarroan, ausardia eskatu

genion Barkosen Gobernuari bide bera jorra zezan baina ez zuen behar besteko adorerik izan presioei aurre egiteko. Konstituzio Auzitegiak Polizien biktimen foru legea indarrik gabe utzi bazuen ere, orain Chiviteren Gobernuari eskatzen diogu gaiari modu serioan heldu diezaion.

Horrekin batera, Espainiako karteletan dauden berrehunen bat preso politikoetatik 120 torturatu egin zituzten atxilotu zituztenean.

Horiek guztiak kalean egongo lirateke, Istanbulgo protokoloan oinarrituz, trantsiziozko justizia aplikatuta. Hori egitea, sakonean, torturatu egin dela onartzea litzateke, aitortzarako bidean beste pauso bat. Zenbat min arindu daitekeen horrela! Baina hemen, kuarteletan, komisarietan, ez omen da deus gertatu. Torturak inpunitate osoa izaten jarraitzen du, eta torturatzaileak kategoriaz igo ez ezik kondekoratu ere egin dituzte kasu askotan.

Azken batean, torturak eragin digun mina icebergaren tontorra baino ez da. Torturaren existentzia isilaraziz, sakonean gatazka politiko bat ezkututzen ari dira. Modu horretan, fikziozko errelato bat inposatu nahi digute, zintzoen eta gaiztoen artekoa, herri oso bati hitza eta erabakia ukatzen jarraitzeko, herri oso baten mina betikotzeko.

Egia osoa argitara ematea behar-beharrezkoa dugu, ez bakarrik gure mina arintzeko, baizik eta herri honek bake eta askatasun agertoki berri batera aurrera egiteko ere. Sufrimendu batzuk ukatzeak gatazkara gehiago katramilatzen gaitu eta gatazka betikotzen du. Gure seme-alabek oinordekotzan ez dezatela gure mina jaso, bakean eta aske bizi den herri bat baizik.

Egoitz Luisa eta Maddi Sarasola

Anoetako Sortu

Sanz
CLÍNICA DENTAL
ODONTÓLOGO GENERAL
IMPLANTES
PRÓTESIS

Rondilla 48, 1B
20400
TOLOSA
Tel.: 943 65 33 39

Dr. Fco. Javier Sanz Céspedes
Médico-Odontólogo
Colegia. 20.000.573

Futbol egokituaren laugarren topaketa egingo dute

TOLOSA // Futbol egokituaren laugarren topaketa egingo dute Tolosan, larunbatean, 10:30etik aurrera, Usabalen. Oinez dabil-tzan desgaitasuna duten haur eta gazteei zuzendutako topaketa izango da eta 10 urtetik gorako umeek hartu dezakete parte. eskolakirolegokitua2@gmail.com helbidean eman daiteke izena.

Batzarra egingo dute Amaroitz auzoan, astelehenean

TOLOSA // Astelehenean, hilak 17, batzarra egingo dute Amaroitz auzoan, 19:30ean, medikua dagoen lokalean. Auzo Etxeko obrak irailean bukatu baziren ere oraindik ez dago erabilgarri eta gaia jorratuko dute, eta farmazia ixterakoan botikina izango ote duten ere izango dute hizpide, beste hainbat gairen artean.

Tortura sexistak aztertuko dituzte Txapartegirekin

ANOETA // Erbestetik, bideokonferentziaz emango ditu argibideak Nekane Txapartegi Asteasuko iheslari politikoak, Anoetako Gaztetxean, bihar, 18:30ean. Tortura sexistak pairatu zituen eta bere bizipenetatik ariko da Ernaik antolatutako ekitaldian. Gaur da Torturaren Aurkako Eguna.

Parte hartze prozesuko bigarren batzar irekia deitu dute

Amasa-Villabonako Udalak 400.000 euro jarri ditu herritarren artean zein inbertsio zehatz egingo den erabakitzeko; batzarra astelehenean 19:00etan egingo da, Subijana etxean

E. Maiz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak, datozen hilabeteetan garatzeko asmoa duen herritarren parte hartze prozesuari eta herri galdekertari buruzko bigarren batzar irekia antolatu du. Hilaren 17an, astelehenean izango da, 19:00etan, Subijana etxean.

Bi puntu nagusi jorratuko dituzte, alde batetik, udalak lehen batzarrean aurkeztutako proposamenari buruzko ekarpenak biltzea izango da. Eta bestetik, udalak martxan jarri nahi duen App komunikazio tresna berriaren aurkezpena egingo dute.

400.000 euro jarri ditu udalak, eta herritarrek erabaki beharko dute zein inbertsio zehatzetan gastatu nahi dituzten. Hamasei urtetik gorako herrita-

rrek izango dute parte hartzeko aukera, eta hainbat proiektu edo egitasmo egongo dira aukeran. Asteleheneko batzarrean, elkarre, eragile eta norbanakoen ekarpenak eta proposamenak jasoko dituzte, eta udalak parte hartze prozesua garatzeko erabiliko dituen tresnak aurkeztuko dizkie bertaratzen direnei.

MUGIKORRERAKO APLIKAZIOA

Udalak telefono mugikorrerarako Amasa-Villabonarako den aplikazio (App) berria jarriko du martxan. Aplikazio hau oso erabilgarria eta eraginkorra izan daitekeela adierazi dute herriko elkarre eta eragile guztientzat. Aplikazioak eskainiko dituen erabilerarako aukera ezberdinak aurkeztuko dira batzarrean, modu praktikoa batean.

Zine bonu berria salgai gaurtik aurrera

Martxoaren 23a bitartean 17 film eskainiko dira; horrez gain, Bang Bang egitasmoa eta Mendi Tour izango dira

Erredakzioa Tolosa

Gaur jarriko dituzte salgai zine ziklo berriko bonuak Leidorreko leihatilan. 17:00etatik 19:00etara izango da erosteko aukera. Zine ziklo hau gaur bertan hasiko da, eta martxoaren 23an amaituko da. Guztira 17 film ikusi ahalko dira, horietatik bost haurrentzat izango dira.

Helduentzako sailean honakoak izango dira filmak: *Adú*; *Dios mío, ¿pero qué te hemos hecho ahora?*; *Jojo Rabbit*; *Mujercitas*; *El faro*; *Hasta que la boda nos separe*; *Te quiero, imbécil* eta *El silencio del pantano*. Zine forumaren barruan, berriz: *Longa Noite*, *Sobre lo infinito*, *Una gran*

mujer eta *Derechos de hombre*. Aldiz, haurrentzako filmak hauek dira: *Lur eta Amets*, *Operación Panda*, *Las aventuras del doctor Dolittle*, *Sonic*, *la película* eta *Volando juntos*.

BANG BANG ETA MENDI TOUR

Martxoaren 7an egingo da Bang Bang egitasmoaren bigarren emanaldia, eta *Regreso al futuro* eta *Gremlins* filmak ikusi ahalko dira. Kasu honetan, zine saio berezia denez, sarrera bost euro ordaindu beharko da. Horrez gain, martxoaren 9tik 11ra Mendi Tour Tolosa egitasmoa emanaldiak egingo dira Leidorren; beraz, asteburu horretan ez da zine emanaldirik egongo.

Protestan, zahartze osasuntsurako osasun estrategiak jardunaldian

Asuncion Klinikak antolatutako jardunaldia aprobetxatu dute Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko plataformak eta Tolosaldeko Pentsiodunek beraien aldarrikapenak egiteko



TOPAk eta Tolosaldeko Pentsiodunek beraien aldarrikapenak egiteko baliatu zuten atzoko jardunaldia. E. MAIZ

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Asuncion Klinikak antolatuta Zahartze osasuntsurako osasun estrategiak jardunaldia izan zen, atzo, Tolosako Topic zentroan. Estatu osoko adituak Tolosan bildu ziren, zahartzeari eta hauskortasunari aurre egiteko estrategiei buruz eztabaidatzeko. Hau aprobetxatuz, Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko plataformak eta Tolosaldeko Pentsionistek protesta egin zuten sarreran.

09:00etan hasten zen jardunaldia eta 08:30erako jarri ziren Topic zentroaren sarreran pankartak zabalduta. Oihu eta aldarrikapenen artean egin zieten harrera jardunaldira gerturatu zirenei, eta tartean, besteak bes-

te, ikasle ugari etorri zen jardunaldira.

Osasun publikoaren aldeko aldarria egin zuten, eta aldi berean, pribatizazioaren aurkako oihuak egin zituzten jendea igoztean. Tolosaldeko osasun zerbitzuan dauden «murrizketak» salatu zituzten, eta «Osakidetzan %100 espezialitateetako mediku homologatuak daude, eta Asuncion klinikan %50» zioen kartela jarri zuten, «kalitate bereko zerbitzua?» galdera luzatuz.

Hizlarien artean, TOPAk ezauna duen Rafael Bengoa Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu ohia izan zen, gizartearen zahartzeari buruzko ikuspegiaren eta aurkeztu dituen erronka eta aukeren inguruko hausnarketa egin. Ariketa fisikoak eta soziali-

zazioak, hauskortasuna eta mendekotasuna prebenitzeko duten garrantzia eta nutrizioa bezalako funtsezko alderdiak landu zituzten jardunaldian.

Bi proposamen berritzaileraren kasu praktikoak ere aurkeztu zituzten. Alde batetik, Tolosako Udalak bultzatutako Mugi Tolosa proiektua; duela lau urte baino gehiagotik hiribilduko adinekoen artean ibilaldi osasungarriak sustatzen dituen. Eta bestalde, Andres Rodriguez Macrosadeko zuzendaria izan zen Topic-en. Macrosad Espainiako belaunaldien arteko lehen zentroa da, eta 0 eta 3 urte bitarteko haurrak adin nagusikoekin bizi eta elkarreraginean aritzen dira, haurtzaindegian dauden bitartean.

EGUNERO IREKITA IGANDE GAUAK IZAN EZIK

OSTIRALA, LARUNBATA ETA IGANDE EGUERDITAN IREKITA

Martxoaren 14an eta 15ean jokatu da Bandres-Karolo Oroimenezkoa

Asteburuan zen egitekoa Bandres-Karolo mendiko eskiko proba, baina elur falta dela eta, atzeratzea erabaki du antolakuntzak

Erredakzioa Tolosa

Euskal Herriko Pirinioetan egin ohi da Antxon Bandres eta Carlos Imirizaldu *Karolo*-ren Oroimenezkoa. Ehunka eskiatzaile izaten dira Izaba eta Belagoa inguruetan. Aurten, ordea, ez dago elurrik. Eguraldi iragarpenetan ere ez da aurreikusten proba jokatzeko elur nahikorik egingo duenik. Beraz, egoera ikusita, lasterketa hilabete atzeratzea erabaki dute antolatzaileek.

Berez, Euskal Herriko banakako txapelketa izan behar zuen proba honek, baina martxoaren 14an eta 15ean, Espainiako Txapelketak jokatu dira Cerlerren eta Pierra Mentan. Hainbat selekzio joango dira horietara, eta beraz, Euskal Herriko txapelketa, igande honetan jokatu da, Club de Montaña Pirineos taldeak Panticosan antolatu duen XXXVIII. Zeharkaldian. Larunbatean, kronoigoera bertikala egiteko aukera ere izango da.

Jada Bandres-Karolo proban izena eman eta martxoaren 14an eta 15ean bertan egon ezin dutenek, otsailaren 23a baino lehen, bandreskarolomemoriala@gmail.com helbide elektronikora mezua bidaliz ohartarazi beharko diote antolakuntzari, dirua itzuli ahal izateko. Martxoko astebururako izena eman nahi duenak, berriaz, www.zirkuitua.com webgunean du aukera.

Jatorria ahaztu gabe, harrobia zaindu nahi du Toloboleik

Eskualdean boleibola sustatzen jarraitzeko helburuarekin ekin dio, urte berriari, Tolobolei Elkarteak. Aurten, ordea, haurren eta gaztetxoengan jarri dute fokua

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Tolobolei elkarteak, zenbait alaketekin ekin zion, udazkenean, denboraldi berriari. Behin irailean jokatu den Tolosako Hondartzako Boleibol Txapelketa amaituta, denboraldi berria prestatzeko ekimenak elkarteko kideek. Iaz, berrikuntza handi bat izan zen.

Tolosako zenbait emakumek, pistako boleibol taldea osatu zuten, eta Euskal Herriko Ligan aritu ziren lehiatzen. Elkarteko kideen esanetan, «arrakasta handia izan zuen, eta oso gustura aritu ziren. Hala ere, partaide gutxiarekin amaitu zuten denboraldia. Hasiera batean hamalau jokalariz ziren, baina lana, haurrak edota lesioak medio, askok ezin izaten zuten entrenatzera joan, ezta partidak jokatzera ere. Ondorioz, aurten bertan behera geratu da taldea, eta ezinezkoa izan da erreleboa aurkitzea». Hala ere, bakar batzuek, boleibolaz gozatzen jarraitu nahi izan dutenez, entrenatzaile baten laguntzaz, saio bat egiten dute astero. «Ea urteren batean talde hori berreskuratzeko aukera dugu».

Emakumezkoen taldea sortu ez denez, beste ikuspuntu batekin dihardute orain. «Epe luzera begira jarritako helburuak betetzeko asmoz, harrobiko taldeekin hasi gara lanean. Batetik, 15 neska kadete eta 15 neska infantil ditugu, bi taldetan jokatu. Lan txukuna egiten ari dira». Kadete mailan ere mutilen talde



2018ko udazkenean, Ferialekuan jokatuak txapelketa bateko irudia. I. SAIZAR

bat dute, nahiz eta tartean infantilak eta alebinak ere badauden. «Hauek, denbora gehiago darabate, eta jokatzeko erantzen zaien hori. Entrenatzaileen ahalegina ere nabarmentzekoa da, lan ona egiten ari direlako. Benetan eskertzekoa da».

Harrobiko taldeak osatzeaz gain, haurrengan kirol honekiko ilusioa piztu nahi dute. «Haurrek boleibolaz goza dezaten nahi dugu, izan pistan edota hondartzan». Elkarteak, baina, harago joan nahi du, eta ikastetxei, Eskola Kirola programaren barruan, kirol minoritario hau aukeren artean izatea eskatzen die. «Oraingoz, urtean zehar 2-3 jardunaldi egiten ditugu beraiekin. Tarteka etortzen dira, jolas batzuen bitartez, ondo pasatzera. Guk, ordea, gainerako kirolen maila berean egotea nahi dugu».

BAZKIDETZA ETA TXAPELKETAK

Sortu zenetik, elkarteak begiz jota izan duen zereginetako bat, bazkide berriak lortzearena izan da. «Jada hasi gara aurtengo izen-emate kanpainarekin». Izena eman nahi dutenek, 18 urtetik gorakoak izan behar dute, eta eskualdekoak. Hilaren 29an amaituko da epea. «Erritmo onean doa, eta badira bazkide berriak ari direnak ere. Iaz, 130 bazkide baino gehiago izatera heldu ginen». Bazkide bakoitzak elkarteak Ferialekuan duen instalakuntzara sartzeko eta bertako materiala erabiltzeko giltza izango du; hori bai, elkarteko kideek, uneoro kontrolpean izango dute nork erabiltzen duen. Ordaindu beharreko kuota, 50 eurokoa da. «Guretzako prezioa ez da merkea edo garestia, sinbolikoa baizik. Dirua, elkarteak antolatutako

ekintzetara bideratzeko eta bazkideek erabiltzen duten materiala erosteko erabiltzen delako».

Toloboleiren asmoetako bat, bazkide bakoitzak, gutxienez txapelketa batean parte hartzea da. Egutegi bat osatu dute, urteko txapelketa guztiekin. Hemendik gutxira, esaterako, Udaberriko Liga jokatu hasiko dira, 4x4 Txapelketa Mistoa. Hiru hilabetez, hamasei talde elkarren kontra ariko dira. Azken jardunaldian, bi bikote onenek finala jokatu dute. Nahi dutenek, aukera dute oraindik izena emateko. Baldintza bakarra bete behar da: nahitaezkoa da talde bakoitzean bazkide bat egotea.

Aipatutako txapelketa horrez gain, 2x2 Txapelketa Mistoa eta nesken 3x3 Txapelketa ere antolatzen dute. Haurren bi txapelketa ere bai. Haurrek bakarka ematen dute izena, eta taldeak, zozketa bidez egiten dira gero. Helduetan, 3x3 Txapelketa Mistoa ere egiten da, taldeak egiteko haurren sistema berdina erabiliz. Pistako boleibolako txapelketak ere jokatu dira. Urtean zehar, gainera, edonork jolas dezake Ferialekuko kantxetan; betiere, bazkide baten laguntzaz joanez gero. «Tolosan eta eskualdean boleibola sustatzen jarraitu nahi dugu». Interesa dutenek, elkartearekin jar daitezke harremanetan, tolobolei@gmail.com helbidera nahiz Facebookeko edo Instagrameko orrialdeetara mezua idatziz, edota 680 845 158 telefono zenbakira deituz.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



CAJA RURAL SEGUROS RGA

«Urte garrantzitsua izango da; bai edo bai aurrerapauso bat eman beharrean nago»

JON IRISARRI RINCON
CAJA RURAL TALDEKO TXIRRINDULARIA

laz, denbora gehiago igaro zuen errepidetik kanpo, bizikleta gainean baino. Arantza hori atera nahian, taldearentzat lanean aritzetik, beste urrats bat ematera pasa nahi du aurten.

J. Artutxa Dorronsoro Leaburu

Saudi Arabiatik etxerako bidaia egin zuen, asteburuan, Jon Irisarri Rincon (Leaburu, 1995) txirrindulariak. «Nekatuta» heldu da petrolioaren eta meskita sakratuen lurraldetik. Aurtengoa, laugarren urtea izango du Caja Rural Seguros RGA taldean. Urte hasieran sinatu zuen urtebetarako kontratu berria. Lesioak ahaztu, eta ilusio handiarekin burutu nahi du 2020 urtea.

Nolako urteak izan ziren profesionaleko lehen hirurak? Ikasteko urteak izan dira. Taldekideei laguntzen aritu izan naiz. Iaz, baina, jauzi bat eman nahi nuen. Ilusioz hasi nintzen, oso indartsu. Hala ere, urte txarra izan zen, desastre hutsa. Denboraldi hasieran eroriko bat izan nuen, eta ordutik aurrera erritmoa hartu ezinik aritu nintzen. Urte txar bat edukitzea zer den ikasi nuen behintzat. Aurten, beraz, jauzi hori ematea espero dut.

Laugarren urteari ekiteko, Saudi Arabiako Itzulian parte hartu zenuen pasa den astean. Zer moduz aritu zinen? Itzuli hau egiten zen lehen urtea zen, beraz, ezezaguna zen gutzientzat. Esperientzia berria izan da, oso polita, bestelako kultura eta bizimodu bat ezagutzeko aukerarekin. Denetarikoa etapak izan ditugu, gogorak eta lasaia-goak. Hala ere, penatuta geratu ginen. Lasterketa hau amaituta, Omango Itzulian aritzeko intentzioa genuen, bidaia aprobetxatze aldera, baina lasterketa bertan behera geratu zen, bertako Sultanaren heriotzagatik. **Etaparen batean, gainera, ihesaldian sartzea lortu zenuen.** Etapa gogorretako mendateetan ondo moldatzen naizenez, aldaparen bat igo beharra izango zenean, aurrean ibiltzeko intentzioarekin joan nintzen. Hala ere, beroagatik edo, ez nintzen batere gustura sentitu, eta ez nuen aukerarik izan. Azken eta-

pan, neure buruarekin gustura geratzeko, erasora jotzea erabaki, eta aurrean sartzea lortu nuen. Ondo joan zen, tropelean urduri zeudelako; hala ere, haize handia zebilen, eta horrek ez zuen erraztu gure lana. Azkenean, harrapatu egin gintuzten. **Sasoiko sentitzen zara?** Baliteke. Ez zen espero bezalako hasiera izan itzuli honetan, baina behintzat amaiera on bat emateko aukera izan nuen. Oso pozik nago, etapa irabazteko aukerakin ere sentitu nintzelako. **Iaz izandako arazoei aurre egin, eta urtea indarrez haste-ko balio al du?** Egia esan, bai. Iaz, zapore txarra-ekin amaitu nuen urtea, eta niretzat oso garrantzitsua zen aurten ondo hastea. Gainera, nire burua ihesaldian ikusteak, aurrerantzean gehiago zaindu, hobeto entrenatu eta lasterketetan aurrean ibiltzeko ilusioa dakar. **Eta zein dira denboraldi honetarako dituzun asmoak eta helburuak?** Taldearen helburu nagusia, Euskal Herriko Itzulia izango da, eta nik ere bertan jarriko ditut begiak. Urteko lasterketa garrantzitsuena da guretzat; nire asmoa, bertara sasoiari iristea da. Lehenago, saio onak egingo ditut entrenamenduetan. Frantziako bi klasikatan ere hartuko dut parte, eta prestaketa saio gehiago egin-

go ditut ondoren. Martxoan, Settimana Coppi e Bartali lasterketan ariko naiz, Italian. Azken hau, Itzulia prestatzeko baliagarria izango da. Segidan, Yorkshireko Itzulian parte hartuko dudanez, etxeko lasterketan lortutako sasoiari baliatu nahiko nuke. **Udatik aurrera, berriz, Ordiziako, Getxoko eta Donostiako Klasiketan aritu nahi dut. Azkenik, Burgosko Itzulian parte hartu, eta jarraian, Espainiako Itzulirako zerrendan egotea amets handi bat betetzea izango litza-ke. Ilusio handia dut, gogor lan egin eta helburuak lortzeko.** **Urte berezia izan daiteke?** Bai. Giltzarria izango da, oso garrantzitsua, jada laugarren urtea delako; bai edo bai, aurrerapauso bat eman beharrean nago. Urteak aurrera doaz, eta beraz, taldearentzat lanean aritzetik, taldea aurrera eramatera pasa behar dut, garaipenen lehia. Lan ona egin dudala iruditzen zait, eta taldeak nigan konfiantza handia duela erakutsi dit. **Gaur aurkeztu dute Euskal Herriko Itzulia. Bertan egote-ko aukerak dituzu?** Urtea hasi aurretik, zein lasterketetan parte hartu nahi dudala esaten diet, eta oraingoz, urtero izan naiz. Aurten ere parte hartuko dudala baieztatu didate, beraz, tartean lesiorik ez bada, bertan izango naiz. **Eta zein izango da zure helburua, lasterketa honetan?** Honezkero jakitun naiz Itzulian zein erritmo ezartzen den. World Tour mailako txirrindulariek hartzen dute parte, eta beraz, lasterketa oso azkarra izaten da. Astebeteko itzulien artean, munduko lasterketa garrantzitsuenetako bat da. Garaipenerako borrokan ibiltzea oso zaila izango da, baina agian, baliteke etaparen batean, ihesaldiaren ondorioz, talde txiki bat sortzea. Ederra litzateke multzo horretan sartzea. Oso zaila izango da, bai-

na ni behintzat, saiaturik naiz. Zergatik ez? Taldearentzat oso garrantzitsua da postu on bat lortzea edota mendiko nahiz tarte-ko helmugetako puntuen maila lortzeko lehian ibiltzea. **Zure izena nahiz taldearena aurrekoen artean ikusi, eta entzun dadin, ezta?** Noski, eta izen handiko lasterketetan are garrantzitsuagoa da hori. Batez ere, gure taldearen maila berean daudenentzat. **Taldekideek garaipena lortze-ak ere garrantzia izango du.** Goi mailako txirrindularitzako funtzionamendua, ziklo moduko bat da. UCI Pro Team kategoriako taldeek, gureak adibidez, egutegi baten arabera funtzionatzen dute. Egutegi horretan, zuk nahi adina lasterketa markatu ditzakezu, baina gero, gonbidapenen zain egon behar duzu. UCI World Tour mailakoek nahi adina probetan har dezakete parte. Gure kasuan, nahiko genukeen lasterketetara joateko, ezinbestekoa da garaipenak lortzea, eta beraz, nik ezin badut, nire ondokoak irabaztea nahiko nuke. Hori dela eta, beharrezkoa da talde izaera egoki bat mantentzea. Garaipen gehiago lortuz gero, lasterketa gehiagotara joateko aukera handiagoak izango genituzke, eta horri esker, maila handiagoa lortuko genuke. **Nolako taldea duzue aurten?** Aurten ez dugu izen handiko lider finkorik. Talde orekatua osatu dugu, eta asko, gainera, nire egoera berdinean aurkitzen dira. Eremu guztietan ondo moldatzen garen txirrindulariak gara. **Gaur egun, nola ikusten duzu goi mailako txirrindularitza?** Belaunaldi aldaketa bat gertatzen ari da, historikoa, baina beharrezkoa. 3-4 txirrindulari gazte maila bikaina erakusten ari dira, eta orain arte aurreko postuetan ibili izan diren txirrindulariak, alde batera geratzen ari dira. Gainera, ez dakigu gazteek zenbat urte iraungo duten goi mailan, 20-21 urte dituztelako.

MOTZEAN

Txirrindulari bat. Mark Cavendish. **Taldekide bat.** Alvaro Cuadros. **Garaipen onena.** Legazpiko Santi-kutz Klasikoan lortutakoa, 2016an. **Esperientzia txarrena.** Iaz, Frantziako Rhône-Alpes Isère lasterketan izandako erorikoa. Zazpi saihets hautsi nituen, eta birika bat zulatu zitaidan. Pneumotorax bat ere izan nuen. Ez dut sekula ahaztuko. **Lasterketa bat.** Donostiako Klasika. **Itzuli bat.** Euskal Herriko Itzulia. **Mendateak ala esprintak?** Mendateak igo osteko esprintak.

BILLABONA FKE	
Arratzain futbol zelaia	
1. KADETE MAILA	Larunbata 15, 11:00etan
BILLABONA F.K.E. - OSTADAR F.T.	
ERREGIONAL PREFERENTE MAILA	Larunbata 15, 15:30etan
BILLABONA F.K.E. - MONDRAGON C.F.	
OHOREZKO JUBENIL MAILA	Larunbata 15, 17:45etan
BILLABONA F.K.E. - TOURING K.E.	
INFANTIL TXIKI TXAPELDUN FASEA	Igandea 16, 10:00etan
BILLABONA F.K.E. - LENGOKOAK K.E.	
1. INFANTIL TXAPELDUN FASEA	Igandea 16, 12:00etan
BILLABONA F.K.E. - TOURING K.E.	



OSTEGUNA, 2020KO OTSAILAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 13

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Jesus M. Etxe-
beste Elozegi. Gernikako Arbolaren
lorategiak, 3. 943 65 10 40.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz
Galarza. Amartz auzoa, 9.
943 67 5118.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen
eguraldi iragarpena, agenda, egune-
ko berriak, Kulturari begira, Baserri-
tik eta eskualdeko musikariak pro-
posatutako musika proposamena.
11:00. Eutsi Goiari. Kirolak.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebraidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. Mestibull. DJ Bullekin.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Ur etalur
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe
22:30. Ezetz asmatu (Allende-Sa-
lazar ikastetxea)
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Erabat altxa ezinik ibi-
liko da eguraldia. Goizean
nahiko giroa argia izango da,
hodei eta ostarteekin. Arratsaldeko
lehen orduetan aldiz hodeitza are-
gotu eta euri zaparradaxka batzuk
izango ditugu. Gauean berriz ater-
tzeke joera hartuko du. Haizeak goi-
zean hego-mendebaldetik joko du,
arratsaldean mendebal/ipar-men-
debaldetik finkatuz eta tenperatura
igo egingo da, 14-16 gradura.

Bihar. Giro eguzkitsu eta
epela. Goizaldean eta azken
orduak hodeigune batzuk
agertu arren, gainontzeko orduetan
zeru urdina nagusituko zaigu. Haize-
ak aldakor xamar joko du, lehen eta
azken orduetan hegotik finkatuz
eta tenperatura maximoak gora
egingo du, 16-18 graduan joz goia.

AGENDA

OTSAILAK 13

Tolosa. Aktibatu 2020, turismo alo-
rreko eragileei zuzendutako jardun-
aldi profesionala, 08:30ean hasita,
Topic-en. Natura turismoa eta iraun-
kortasunaren inguruko topagunea
eta hausnarketa gunea.
Zizurkil. Guretzako, emakume
atzeritarren topaketa-gosaria,
Atxulondo kultur etxean, 10:30ean.
Alegia. Lur Usabiagak eskainitako
ipuin kontaketa saioa, liburutegian,
17:00etan.
Ikaztegieta. San Lorentzo jaiak an-
tolatzeko lehen bilera, udaletxean,
18:00etan.
Larraul. Martxoaren 8a antolatzeko
bilera, 18:00etan, liburutegian.
Amasa-Villabona. Santioetako Jai
Batzordeko bilera, udaletxeko oso-
ko bilkura aretoan, 18:30ean.
Zizurkil. Mahai ingurua. Tortura os-
tean berreraikitzen, genero pers-
pektibatik. Nekane Txapartegi,
Olatz Dañobeitia eta Miren Azkara-
te. Atxulondo kultur etxean,
19:00etan.
Tolosa. Longa Noite, zine forum
saioa, 19:15 eta 21:45ean, Leidorren.
Tolosa. Tolosako udal musika ban-
daren inauteri kontzerturako entse-
gua, musika eskolan, 20:15ean.

OTSAILAK 14

Lizartza. Inauteriak: eskolak antola-
tuta mozorro festa, 14:15ean. Ondo-
ren. Kalejira.
Berastegi. Inauteriak: 14:45. Eskola-
ko desfilea. 16:00. Eskola atarian
dantza. Jarraian, txokolate jatea.
17:30. Haurren dantza, trikitixa eta
txistu emanaldia. 19:00. Pintxopote
mozorrotuta.
Tolosa. Inauterietako kontzertua:
The Herrikide's, San Frantziskoko
elizan, 18:00etan.
Ibarra. Kaldereroak: San Bartolome
plazatik, 18:00etan.
Anoeta. Kaldereroak: Kalejira, plaza-
tik, 18:00etan. Ondoren, txorizo pin-
txoak plazan.
Irura. Kaldereroak: Kalejira, 18:30ean,
Kulturunetik abiatuta. Ondoren, as-
karia.
Anoeta. Tortura sexista Nekane
Txapartegiren bizipenetatik, gazte-
txean, 18:30ean.
Alegia. Gipuzkoako Odol Emaileen
hitzordua, kultur etxean, 18:30ean.

Asteasu. Erik eta Win antzerkia,
udal aretoan, 20:00etan.
Tolosa. Udaberri Dantza Taldeak
Euskal Herriko Inauterien inguruko
emanaldia eskainiko du: *Gaur txan-
txo naiz*. Zerkausian, 20:30ean.
Alegia. Erradikalak ginen antzezla-
na, elizpe zinean, 22:00etan.

OTSAILAK 15

Lizartza. Inauteriak: 07:00. Plazatik
kalejira, txantxo eta txistulariekin.
07:30. Puske biltzea, dantzari eta
txantxoak elkarrekin ospeletik.
10:00. Etxe-zahar baserrian geldial-
dia gosaltzeko. 12:00. Mozorro, gurdi
eta txarangen irteera Joxe Mariko
aparkalekutik. 13:30. Inauteri partai-
de guztiek kalejira, Arrateko zubitik
irtenda. Ondoren, bazkaria herriko
frontoian. 18:00. Gurdi eta mozorro-
ak Joxe Mariko aparkalekuan bildu-
ko dira kalejiran plazara jaisteko.
Berastegi. Inauteriak: 11:30. Txupi-
nazoa, arbiaren igoerarekin batera.
Ondoren. Hamaiketako eta jolasak
plazan, Urepele elkartearen eskutik.
13:00. Mozorroren desfile, koreogra-
fia... plazan. 14:00. Herri bazkaria.
17:30. Kanean txaranga tabernaz ta-
berna. Iluntzean. Lunch eta DJ Txoko
Urepele elkartean.
Tolosa. Oinez dabilzan desgaitasu-
na duten haur eta gazteei zuzendu-
tako Futbol egokitua laugarren to-
paketa, Usabal futbol zelaian,
10:30ean.
Tolosa. Kaldereroak: 10:30. Tolosako
Erraldoi eta Buruhandiak, Tolosako
Dultzaineroek lagundurik, Gernikako
Arbola plazatik. 12:00. Aiz-Orratz el-
karteko txaranga irtengo da elkar-
te bertatik. 12:30. Haur Jaialdia, Lei-
dor aretoan. 19:00. Urdiña Txiki El-
kartek antolatuta, Kaldereroen
Konpartsa aterako da Plaza Zaha-
rretik. 23:30. Incansables txaranga,
kalez kale.
Anoeta. Herri bat irabazteko. EH Bil-
duko Gipuzkoako arduradunarekin
solasaldia: Eneko Maioz. Balioani-
tzeko gelan, 11:00etan.
Zizurkil. Ipuinen unibertsoa fami-
lian, San Millan eskolako guraso eta
haurren eskutik, Plazida Otaño libu-
rutegian, 11:30ean.
Tolosa. Azoka solidarioa, Berdura
plazan, 16:30ean. Izena emateko:
622 412266.

Villabona. *Mujercitas* filma. Gurea
antzokian, Bi saio: 19:30ean eta
22:00etan.

OTSAILAK 16

Zizurkil. Torturaren egia itzaletik ar-
gira. 09:00. Ibilaldia Haizetsura (PM
Otaño plazatik abiatuta). 13:00. Eki-
taldia Joxe Arregi plazan. Ondoren.
Bazkaria Urkamendi elkartean.
Lizartza. Inauteriak: 11:00. meza na-
gusia. Ondoren. Hamaiketako pla-
zan. 12:00. Dantzariak kanean puska
biltzen gurdi, mozorro eta gainera-
koekin batera. Ondoren, Lizartzako
Inauteri Dantzak plazan. 14:00. Inau-
teri bazkaria pilotalekuan, txarangaz
alaiturik. Ondoren. Zozketak eta he-
rri kirol erakustaldia Karnele Gisa-
sola (Zelai III), Jon Gisasola (Zelai IV)
eta Mikel Agirreren eskutik. 19:30.
Plazan ijitoa errez inauteriei amaiera.
Tolosa. Kaldereroak: 12:15. Inaute-
rietako kontzertua, Tolosako Udal
Musika Banda eta Udal Txistulari
Banda, Berdura plazan, 12:15ean.

Amezket. Haurrentzat pelikula
proiektzioa, kultur etxean, 16:30ean.
Tolosa. Lur eta Amets, haur zinema.
Leidorren, 17:00etan.
Zizurkil. Desaloju arriskuaren au-
rrean Kaxilda Gaztetxea Bizirik. Tai-
lerra: Lan istripuak eta lehen soros-
penak, Kaxilda Gaztetxean,
17:00etan.
Amasa-Villabona. *Zaldi urdina.* Ar-
tedrama. Axut! Dejabu. Ander Lipus,
Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren
Alcala, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate
eta Olatz Beobide. Aingeru, 17 urteko
mutil gaztea, desagertu egin da,
tekno jaialdi batean gazte bat biho-
tzeak jota hil ondoren. Zaldi urdina
deitzen den droga berri batek eragin
dio heriotza gazteari. Gurea antzo-
kian, 19:30ean.
Tolosa. *Adu* filma, Leidor aretoan,
19:30ean eta 22:00etan.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain
hartzen egunkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.



SUA

LEGORRETA KO HERRI ANTZOKIAN
OTSAILAK 14, OSTIRALA
23:00

Sarrerak aurre 6€
bertan 8€

Kioskoan salgai

Antolatzailea: 

Laguntzaileak: 

www.legorreta.eus



RODEO